


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
9n. ZENBAKIA**

**APRILLA
—1978—**



ERMITAK, EUSKALERRIAREN EDER-LANAK

(Mungia'n, Billela'ko ermitea, ederto herriztauta)




70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

EDER-LANAK



Mungia'n Billela'ko ermitea, beste ikuspegi batetik

ERRIAREN BARRUA

Erri guztiak ditue euren barruko aberastanunak eta oneixek dira erriaren izakera berezia, erriaren nortasuna.

Baiña izaera eta nortasun ori barru-barrukoa da eta erriak erri izan gura ba'dau, bere nortasun ori agertu ta erakutsi egin bear dau.

Eta zeintzuk izan leitekez barruko kontzientzi berezi ori azaleratuteko bideak.

Asko ta askotarikoak. Gogoratu dagiguzan batzuk.

Lenengo ta nagusia, bere berbetea, izkuntzea.

Gero datoz, lan egiteko erak, etxeak egiteko asmamena, jantziak egiteko bide bereziak, jolas-erak, dantzak... Baiña, izkuntzaren urrengo bear ba'da, eder-lanak.

* * *

EUSKELERRIKO EDER-LANAK

Ez dogu esan bearko eder-lanaren arloan, guztiz aberatsak garanik, baiña ba daukagu zer-agertu ta erakutsi.

Batzuk inguru zabalean oi zan tankeran egiñak dira, eta oneitan agertzen da gitxien gure nortasun berezia. Oneik beste gauza bat irakasten daukue: Euskalerrria ez dala munduan ugarte itxia izan, beste erri batzukaz artu-emon ugarietan jardun dauana baiño. Erromaniku, gotiku, berbizkunde edo «Churriquera»ren tankerakoak izan daitekez.

Beste batzuk ostera, geure geureak doguz eta oneik agertzen dabe gure euskaltasuna, ondo begituten jakin ezker.

Gure santugiñak, baserritarrak geienetan, irudi ikusgarriak egin dabez, esandako tankerak alde batera itzita. Arrese Beitia Otxandiotarra zan, esaterako, olako bat.

Gogoratu dagiguzan gure baserrietan merke saltzen diran kutxak, gure oga-zeruetako margazkiak, esaterako oillarren burrukak...

Eta etxegintza arloan, olako zerbait, aberastanun geiegi barik, agertzen jaku gure ermita edo baseleizetan.

* * *

ERMITEN ARAZOA

Gure baseleizak ba dauke ba Euskalerrrian zer-esana.

Alde batetik, eder-lan edo arte lez, etxeak berak eta barruko irudiak.

Beste alde batetik, izadiaren edertasuna, ikuspegi ikusgarria, atsedentoki ezin obeak.

Emen, antxiña lez gaur be, ibiltaritza edo turismoa ta kristautasuna ondo alkartzen dira. Kristiñau izatea ez da nekeak artzea, beste barik, izadiak damoskuzan atsegiñen bidez egillearengana joatea be bide orretan dago.

Txalogarria gure asabak egin daben lana orretarako, baiña ez ain goragarria guk gaur egiten doguna. Areik egin dabena zaindu ez, edo apurtu, besterik ez dogu egiten sarritan. Baseleizak, alde batetik zergak, bestetik itxitasuna, arriskuan dagoz.

ZER onetan aurkitu al izango dabe irakurleak Gaztelugatxeko Jon deunaren Ermitaren arazoa, eta Basajaunen idaz-lanean, Galdakano'n, egin diran aldakuntza on batzuk.

* * *

GURE ZEREGIÑA GAUR

Ondo diñosku ABERKIDE'K zeintzuk diran gure egitekoak: Ermitak barriztu, zaindu, ez apurtu, jaiak eratu, inguruak edertu, egokitu... Bide ori artu eben Mungia'n Billela Auzoan.

Zarrakandik artua dogun eder-lan au, aurrera atera eta urrengoentzat edertuta itzi dagigun.

GORDE DAGIGUN

TOKI IKUSGARRIAK.—Ba dagoz Euskalerrian leku ikusgarriak.

Sarritan leku orreik, eleiza, ermita edo antzekoak izaten dira, eta ikusgarriak diran lez, oso ikertuak izaten dira, jente asko igaroten da andik.

Etxe orreik askotan ikusteko barik, beste gauza askotarako erabilten dira, zer diran eta dauken garrantzia emon barik erabilliaz.

* * *

GAZTELUGATXE TA INGURUA.—Adibidez, Bakio ta Bermeo'ren bitartean dagoan Gaste-lugatx'eko Juan deuna.

Bai eleizea eta bai bertarako bidea oso txarto dagoz: Apurtuta, zikinduta, konturatu barik erabilliaz dira.

Batez be zubia oso txarto dago. Gaiñera, azkenengo itxaso aundi ta gogorrek, kaltegarriak baiño ez dira izan.

* * *

NOR ARDURADUNA?—Batzuk ez dabe konpontzen, eurak ez diralako arduradunak, besteak be orrexegaitik, baiña nik galdetzen dot: Nor da arduraduna?

Ala ez dago arduradunik?

Nire ustez, arduradunak guztiok gara, leku orretara joaten, garanok. Gitxienez artu doguzan lez itzi bear doguz eta zeozer konpontzea gure eskuan ba'dago, konpondu.

Edo konpondu bear dauanari eskatu, bere lana egin dagiala.

Ezin gara, leku orreik «patrimonio artístico» lez izendatu arte, itxaroten egon. Izendatze ori datorren bitartean, agur gure toki ikusgarria!

* * *

GURE ETXEA

GUZTION EGINBEARRA.—Baiña ni onetara noa: Geu, zu ta ni ta guztiok, izan bear gara arduradunak. Zar eta gazte, andra ta gizon, **GUZTIOK!**

Guztiak esaten dabe: «Bai polita zala San Juan, bere itxas-ontzia teillatutik eskegita, argazkiak eta amaikatxu oroipenaz» Baiña eldu ziran ibiltariak eta sakristau-etxea biurtu eben euren egon-leku. Sua egiteko sakristauaren etxeko olak erre ebezan, urengoak lengoak itzitako olak, gero eleizan egon ziran itxas-ontzi ta arraunak, leioetako markoak be bai.

* * *

BASATIEN JOKABIDEA.—Orreik bai ba ziralara benetako «vándalo»ak, eta gaiñera euskaldunak ziralara esango eb en.

Benetako euskaldun batek, bere etxea zaintzen dauan lez, alan zaindu bear dau bestearen etxea be. Ez norbera ondo eta besteak or konpon.

* * *

BERMEO'TARRAK ZINTZO. — Bermeo'tarrak, euren eroapen guztiagaz, konpondu eben eleizea. Bear ba'da, ondo zainduta egon ba'zan ez eben lan ori egin bearrik izango.

Au adibide txiki bat izan da, onalakoak edo antzekoak asko izango dira Euskalerra zabalean, batzuk besteak baiño larriagoak.

Geure ardurea da emendik aurrera, olakorik jazo ez daiten alegintzea. Orrelan bai izango garala benetako euskaldunak eta ez benetako «barbaro»ak. Ogeigarren gizardian bizi gara!

ABERKIDE

«I K A S T O L A»

A L D I Z K A R I A

Eskuan daukagu **IKASTOLA** aldizkari politaren 16'garren zenbakia. 25 pezeta bere salneurria.

Munduko piztien barria emoteko, Hamster sagu garizalearen irudia dakar gaiñean.

Lejarzegi'tar Mendata'ko gazetxuaren ipuin saritua, irudi egokiagaz.

Bibliaren jakingarriak be bai, oraingoan Dabid eta Goliat.

Euskalerraren kondairagaiak eta beste barri asko eta umeentzako ipuin egoki asko.

Margo egokiz eta irudi ikusgarritz beterik dago. Umeentzako irakurgai ederra da.



GALDAKANO'KO BASATXONUAK

MARIÑE DEUNARENA.—Bizkaia'n, eta Euzkadi guztian, basatxonuak edo ermitak ugari izan dira mendi-gaillur eta larreetan.

Galdakano Bizkai'ko zati bat eta antxiñako erri bat izanik, ezin litzaken orretariko gur-leku barik izan.

Basatxonu orrein artean bat egoan Bizkaia'n lenengotarikoa, Ganguren'go gallurrean.

Gaur egun ain ospetsua dogun Andra Maria'ren eleiza zar erromanikua amaitu zan ingurura arte, an egoan, Mariñe donea bertako goi-jabole ebala.

Ganguren'go basatxonu ori, erti aldetik garrantzitsua izan bear zan, Dakigunez, erromanikua ei zan, eta erti orretako basatxonu ta eleizak zer-ikusit aundikoak dira.

* * *

BARNABA DEUNARENA.—Beste lau basatxonu be, antxiñakoak ditu Galdakano'k: Gumuzio'n (Erletxectan) Bernabe deunarena, orain urte batzuk bertako auzokideak eleiza eder lez jaso, baiña orain gizaldi bi edo gitxiago, Arrizurigaiña barrenean, zelaikada eder baten egondakoa ta geroago Gumuzio'ko bitxabal ondora jatsitakoa.

Oso zarra ta txikia zan bera.

* * *

ANDER DEUNARENA.—Usansolo'n, gaur egun eleiza eder apaiña aurkitzen dan tokian aurkitzen zan Euskolangilleen jabole dan Ander Deunaren eleiza.

* * *

KURUTZEARENA.—Erriko enparantzan aurkitzen zan basatxonu bat, Gurutze Deunaren Jasokundeari eskiñia, eta orain irurogei urte eratsi eben.

Ortik dator erriko jai nagusizat Gurutzearen jasokundea ospatzea.

* * *

IGOKUNDEARENA.—Bekea'n, Jaunaren Igokundearen, edo, Galdakano'tarrok obeto eza-gutzen dogun Azentzioaren basatxonua daukagu.

Aldi baten inguruetako jolasik politenak ospatuten ziran toki alai onetan.

* * *

BARBARA DEUNARENA.—Aipatu doguzan basatxonu orreik baiño barriago bat dago Zuazo'n, Barbara deunari eskiñia, baiña baseleiza baiño txadon txiki bat esanda obeto dago.

Ederra ta apaiña da bera.

* * *

ANDONI DEUNARENA.—Azkenez, or euki dogu orain urtebete edo zerbait geiagora arte, Artetagana'n, Andoni Abad deunaren basatxonua.

Bizkaia'ren zati aundi baten «San Anton Txikerra» izenaz ezagutzen izan da.

Ba eban bere edestitxua, edo zer edo zer, basatxonu orrek.

Orrexegaitik itzi dogu azkenerako beronen barri-emotea.

Geien bat, beronegaitik izan da, idaz-latxu au idazten astea.

* * *

IKUSKIZUN EDERRA.—Artetagana menditxua, 322 neurkin goitik dituana, Galdakano'ren lurraldea da, Zaratamo, Basauri, Arrigorriaga, Ugao ta Bedia erriak bere inguruan dituala. Ori dala ta, ikuskizun bikaiñak dira beronen gallurretatik.

Bai orixe!

Eta ikuskizun orreikaitik, edo urtearen lenengo erromez ibiltea zalako, notintza aundiak bilduten ziran bertoko jaietan, Andoni deunaren egunean eta ainbat geiago egun orren orde, garillaren bigarren igandean.

* * *

BESEGU-JANA.—Orain urte bat edo geiago, U. E. E. Rio Tinto (La Dinamita)'k mendi guzti ori beragandu eban eta basatxonua eratsi, kendu egin eban, baiña eskerrak Zarandona'tar Jokin auzokide emokorrari, beronek emon eban lur-zati ederrean, Ordeñe izanez ezagutzen dan inguru alaian, jaso da barria, txikitxua baiña polita, muñotxu baten gaiñean.

Esan bearrean gagoz, baita, Usansolo'ko txanburu zintzo dan On Bittor'ek be izan dauala zer ikusirik eta zer egiñik basatxonu polit ori toki ortan jasota ikusiko ba'zan.

Ederto On Bittor! Ea laster barrero asten garan Ordeñe-gaiñera beseguak lepoan artuta, Andoni deuna gurtuaz batera egun alai ospatuten, oitura zan lez.

ALTUNA'tar Josu
BASAJAUN'ek.

GALDEGAIA II

GALDEGAIA ADITZA DANEAN

ESANAIA

Aurreragoko lanean, galdegaia esaldiaren zati dan berbare bat (edo berbare batzuk) izan ezker, zati ori non ezarri bear dan niñoa: aditzaren aurre-aurrean.

Galdegaia —esaldiaren adierazkizun nagusia— aditza bera be izan daiteke, eta, izan be, sarri izan oi da. Ikusi:

- Iñaki aitagaz *etorri* egiten da.
- Domekan Gasteiz'en *bazkaldu* egin genduan.
- Atzo ni Bilbo'ra *joan* egin nintzan.
- Idatzi ta idatzi* egiten dau orrek.

Esakuntzon esanaia auxe dozu:

- Iñaki'k aitagaz ZER egiten dau? *Etorri*.
- Domekan Gasteiz'en ZER egin genduan? *Bazkaldu*.
- Atzo nik ZER egin neban? Bilbo'ra *joan*.
- Orrek ZER egiten dau? *Idatzi ta idatzi*.

Egunean egunean euskera darabilen euskaldunak gaztelera diarduenean be orrelango esakerak entzun oi doguz:

- Iñaki venir es lo que hace con el padre.
- El domingo comer es lo que hicimos en Vitoria.
- Ayer yo ir a Bilbao es lo que hice.
- Ese escribir es lo que hace.

Ori euskera garbi-garbia da, ez gaztelera, gaztelerazko berbak erabilli arren.

ERA BITAKO ESALDIK

Galdegaia aditza danean, era bitako esaldiak sortzen dira euskeraz:

- Igo.—Iñaki gaur *etorri dator*.
- Gizon orrek *jakin daki*.
- A bere etxean *egon dago*. Etab.

Esakerok jator-jatorrak dira, beste izkuntzatan entzuten ez diran langoak, tauzko itzulpenik be ez dabe-ta. Onelango esakuntzak aditza bera jokutzen danean eta jokutzen dan aldietan sor daitezke.

2n.—Aditza jokatu ezin badadi, baiña, au da, aditza sintetikoa ez danean, edo, sintetikoa izan arren, jokutzen ez dan aldian badago (laguntzaillea bear badau), orrelango esakerarik ezin daiteke erabilli. Eta *egin* aditzaren bidez askatuko da korapilloa, goragoko lau esaldietan egin dogunez. Beste argibide batzuk:

- Txomin'ek jan da jan *egiten* dau.
- Ni egun guztian etxean egon *egin* nintzan.
- Atzo lo egin *egin* genduan.
- Urrengo egunez joan *egingo* balitz...

Aditza jokatu al badadi be, jakiña, *egin* aditza erabilli daiteke:

- Aita gaur *etorri dator*. Edo: Aita gaur *etorri egiten* da.
- Orrek beti *jakin daki*. Edo: Orrek beti *jakin egiten* dau.

GALDEGAIA ESALDIA DANEAN

GERE LEKUA

Esakuntzaren edozein zati ez ezik, esaldi oso bat be (edo bi edo geiago) galdegaia izan daiteke.

Onangoetan, euskera jatorrez esaldi nagusiaren aditzaren aurre-aurrean joan bear dau (edo beste berbakera bat erabilli).

Nor da Jaungoikoa? itaundu badagizu, esate baterako, erantzuna auxe izango litzateke:

Zeruan dagon gure Aita, zeru-lurren Egille ta Jabea da Jaungoikoa.

edo: Jaungoikoa, zeruan dagon gure Aita, zeru-lurren Egille ta Jabea da.

Eta ez: Jaungoikoa da zeruan dagon... antxiñako kristau-ikasbide zaarrak dakarrenez. NOR izenordeari darantzutson guztia da galdegaia: *zeruan dagon gure Aita, zeru-lurren Egille ta Jabea*. Da aditzaren aurre-aurrean joan bear, beraz.

* * *

LUZEA DANEAN

Galdegaia luzea izan ezker, euskaldun jatorren artean be askotan austen da arau au:

Aitak esan daust *biar goizean Gernika'ra joan bear dauala eta orregaitik ezin daitekela zuenera etorri*. Azpi-marra daroen berba guztiak dira galdegaia. Ori dala-ta, aonelan obeto legoke: *Biar gizean Gernika'ra joan bear dauala eta orregaitik ezin daitekela zuenera etorri* esan daust aitak.

Beste berbakera bat be erabilli daitekela, esan dogu goratuago. Esakuntza luzea izan ezker, *au, auxe, urrengo au, urrengo auxe, onan* etab, aditzaren aurrean ipiñiaz, zatitu egiten da esaldia. Ikusi:

Orduan *auxe* erantzun eban: *Egun aretan ekin eta ekin egin ebela lanean eta geiago egiteko neke-neke eginda egozala*. Azpi-marra ezaririk daben berba guztiak dira galdegaia, baiña onecn ordez *auxe* izenordeak egiten dau galdegaiarena, eta ondo dago.

GALDEGAIA EZEZKO ESALDIETAN

Orain arte baiezko esaldiak bakarrik ikusi doguz. Ezezko esaldietan, oster, galdegaia beti ez izan oi da:

- Ni ez naz Mendizabal.
- Ni Mendizabal ez naz.
- Ez naz ni Mendizabal.
- Mendizabal ez naz ni.

PUXANA'k

BURU GARBIKETAK

GUZTIAI EUSKEREA?

Zenbat erara egiten diran garbiketa orreik eta noraño eltzen diran Jaungoikoak bakarrik daki.

Noraño aldakuntza lortu dan Euzkadi'ko seme batzuen izakeran siñistu ez alakoa da.

Irakurri daigun Alday jaunak «La Gaceta del Norte'n» oraintsu idatzitakoa gizonaren azkatasunari buruz.

Bere idazlana E. A. J.'ren alde asten ebala esan leitekean, Alderdi'aren elburuak agertzen euskuzan ezker gizon azkatuaren alde, baña ori egia ba-zan berak ezin ebala siñistu zelan Alderdi orrek eskatuten eban euskeraren Ofizialtasuna; edozelan be, eskoletan ume guztiei irakatsi bearra.

Non gelditzen ziran orduan gizonaren eskubideak?

* * *

ZERGAITIK?

Ez eban E. A. J.'k eskatzen gurasoentzat aukera azkatu bat euren-alaben irakaskintzan?

Zergaitik ba, aur guztiak euskera ikasi bear ebela, agindua emon gura?

Ez ete zan ori guraso batzuen eskubideak menperatzea?»

Ez egoan bere ekintzan ezelako keskarik ez eztabaidarik, ziurtasun oso-oso bat baño.

Ez eukan ausnartu bearrik zergaitik ete zan eskari ori, zelako errotik datorkion egarri ori E. A. J.'ri. Ain ziur egoan bera!

* * *

ERRIKO SEMEA BERA

Erriko seme bat barik, erbestetik etorrikoa izan ba-zan, Euskadi'n aldi labur bat egindakoa eta aren Nortasun eta Jakintzaren barririk ez ekiana, ez giñan ezertxo be arrituko.

Baña Erriko seme baten agoan...

Tamalgarria, gure ustez beintzat, baña onelan ikusten genduan aren lana.

Zelako buru garbiketak egin bear izan diran azkenengo mende bi oneitan, gaur egun ainbeste Euskalerriko seme, guztiz erdaldunduta egoteko.

* * *

ARDATZ BAKARRA GURA

Errua? Ba-leiteke Frantsezak itxitako erdira-nai edo zentralismo landarak igaro dan mendeko gudan, naiko indar Españako Estaduan, onek egindako lana gure nortasunaren aurka, gure nagikeriaren laguntzaz.

Alday Jauna: Ba-dauka gure Erriak naiko bultzagai edo motibo eskari ori egiteko.

Lenengo ta bein bere izkuntza dalako, bere aberas-tasunaren artean ederrenatarikoa, eta ori naiko ez bada maltzurkeriz menperatua izan dalako.

* * *

EUSKEREA, LEN, ZIGORTUA

Nork ez dau entzun ainbat euskalduben agotik, zelako zigorrak izaten ziran ikastoletan euskerea egiteagaitik, lotsagarritzko erastunak jantsi bear erdera ez egitearik...

Bigarren mallako izkuntza lez salatu, ezertarako balio ez dauan lez irakatsirik, nai ta nai ez, erdera iruntziroz, Euskalerriko Jakintza ta Kondaira esku-tatu eta Españakoa txapeldun ezarririk, aren garaipen eta aunditasunak goralduz.

Zer jazoko litzake, bere senetik ataraz, erdereagaz bardin egin ba-zan?

Zer egingo ete leukee erdaldunak euren eskubi-deen alde?

* * *

ERRUDUN IZANGO ZAREE!

Ori gitxi bada entzun, urte batzuk dirala geuri jazotakoa.

Ondarruko ondartzan gengozala, Suezia'ko neska gazte bat urreratu jakun gure seme-alabakaz euskeraz mintzaten gengozala ikusirik.

Euskera garbian (bere esanez Gotenburgo'ko ikas-tetxe nagusian ikasitakoa), bere biotz-miña agertu euskun euskeraren zoritxarragaitik.

Ezin eban arek ulertu gure nagikeri ta alperkeria; itz oneikaz amaitu eban bere esaldia:

«Euskera galtzen ba'da, ez zarie zuen asaben aurrean bakarrik errudun izango, ludi guztiko gizase-meen aurrean baño, izkuntz eder ori zuen ondore edo herentzia baño, gizaki osoaren ondore dan ezkeru, nai ta gaur egun zuen eskuetan egon bere bizitza».

Ez ete da zio naikorik gure ikastoletan euskeraz ikasi dagien Euskalerrian jaio diran ume guztiak?

ATXUTEGI'tar BITOR

ARANE'KO JENTILLARRI

JENTILLARRI

Gure goi-mendietan dagozan, bi edo iru metroko arriluz-zeai esaten yake JENTILLARRI.

Ildotxo ta xuloak daukez alako batzuk euren goi-bean. Ez berezkoak, gizonak egindakoak baiño.

Trikuarri edo ta dolmenen inguruetan dagoz, geien bat; eta orain lau milla edo, urtekoak dira.

Ez dakigu, ziur, zertarako egiñak izan diran.

Alan ta guztiz ere, esaunda edo ipuin asko ta asko diñoce arei buruz mendigaiñetako artzaiñak.

Ona emen orrelako ipuiñen bat.

PELOTALEKU

Artzain batzuk, Alotza'ko zelaian pillotan ei ebiltzan.

Eta jentil bat urreratu ta itaundu ei eutsen:

—Zer dagizue emen?

—Pillotan ibilli.

—Eta zertarako dozue arluze ori?

—Saka-arritarako.

—Bera be ez dok txarra pillotan erabiltzeko, —esan eta berecala eskuan artu, eta Aralar mendiraño jaurti ei eban.

Pillotaleku deitzen yako, arrezkero, Alotza'ko zelaiari.

Pillotaleku ta dantzaleku. An gauez, illargi betearen argitan, artzaiñak, bakoitza bere errauñuaz, dantzan ibilten ei ziran.

ILLARRIA GORBEIAN

Alotza'ko arriluze ori etzunda dago.

Baiña alako asko zutunik dagoz, eta illarri dirala dirudie.

Alan adierazoten dabe, beintzak, eurei buruz entzun oi diran alango ipuin askok.

Ba-da Gorbea'ko mendian, Odoriaga'ko lepoan, Arane'ko arria esaten deutsoen alago illarri bat. Eta ona, orreri buruz Orozko'n diñoen ipuin au:

Arane baserriko alabatxu bat ei zan.

Eta Gorbea'tik bere artaldea ekarri ei eban etxera. Baiña bi edo iru ardien utsa. Eta arein billa itzulerazo eben etxekoak.

* * *

MARITXU GALDU

Baiña, laiñoa itxi-itxian sartu, eta bideak galdu... Artan illunak artu, eta gauaz mendian nexka gaixoa.

Etxekoak eta auzoak aren billa ei ebiltzan, mendiz-mendi. MARI, MARI!, deadar egiten sarri.

Eta ots orreïn oiartzunak negargarriak ei etozan alde guztietatik: Atxular'ko zulotik, naiz Lekanda menditik edo Aldamin gaiñetik.

Baiña, MARI'ren erantzukik, ez!

Noizbait baiña, Odoriaga-lepoko erdi aldetik, ots bat: emen! emen!

An ei egozan neskatxaren zatiak, mami ta azur, sakabatuak, otsoen egiñetan karraskatuak.

GOMUTAKIA

Gomutagarritzat edo otoitz baten eske, bere etxekoak jarrita, an dago oraindik MARI gaixoaren illarri luzea. ARANEKOARRI dau bere izena.

Geroztik, mendez-mende, orren ondotik igaro diran kristiñauak ATAREN egin eta otoitz bat eta oroipena, an il zan MARI doakabeari, eskaintzen dautsoe.

ESTONBA'TAR MANUEL'EK

PLAZIDO MUJIKAREN IZTEGI BARRIA EUSKERATIK ERDERARA

Iztegi-arloan, Plazido Mujika dogu gaur gizonik ezagunena. Sarritan erabilli dogu berak, urte batzuk dirala, argitaratu eban iztegia, erderatik euskerarakoa. 14.000 saldu ziran.

Baita sarritan esan dogu: Zergaitik ez ete dau iztegi-zale ospetsu onek euskeratik erderara itzultzen dauan iztegia egiten?

Eta berari be olako zerbait bururatu jako eta laster argitaratuko dau iztegi ori: 1.900 orrialdeko iztegi lodi ta ederra izango da.

Baiña zenbat inguruk erosiko daben jakiteko, Plazido josulagunak mezede bat eskatzen dausku: Erosiko dogula esanaz, berari idazteko zenbat ale bear doguzan be agertuaz. Idatzi orretarako zuzenbide onetara:

P. Placido Mujika, S. J.
Santuario de Loyola
AZPEITIA GUIPUZCOA

PERU NAPARRA

NAPARROA'REN ZORI TXARRA

Santxo azkarra 1234garrenean, seme-alaba barik il zan.

Eta Aragoe ta Prantzi, txakur amurratu bi orrein jaki gozoa biurtu zan, andik aurrera, Naparroa gaixoa.

Eta bi zakur orrein ainbat aginkaden ondoren, Aragoi'ko errege Fernando'k kendu eutson bizia, azkenik, 1512'garreneko eraso zital aren bidez.

* * *

PERU NAPARRA, TA ERREGE KATOLIKOA

Albret'eko Juan zan, orduan, Naparroan errege; eta ba eban, aurretik, Fernando'ren asmo zitalen susmorik. Eta bere mariskal zan Peru naparra bidaldu eban Fernando'rengana, onen asmoen garbitasunak eskatzera.

Eta onek, Prantziakin gerran egoala, ta araiño bere mutillak Naparroan zear joateko, baimena eskatu eutson.

An eukala ortarako aren menpean egoan Irungo Pausoa, erantzun eutson Peru'k; aren inguruko Pasai'ko kaian eukazala zain aren lagun Ingelesak.

* * *

NAPARROA MENPERATUA

Andik egun batzuetara, or sartzen dira Gaztelarrak Naparroa'ko lurraldean Alsasua'tik aurrera, ta Iruña'ra alderatu Burunda ta Sakana igaro ondoren.

Naparrak alakorik uste ez, eta arei eutsiteko indarrik be ez, eta Iruña'tik Lumbier'eko urira joan zan iges bertako erregea bere mutil zintzoakin, andik gogor egiteko asmotan.

Baiña ezin gogor egin. Beste gudaroste bi sartu ziran Naparroa'ra Logroño ta Aragoe aldetik. Ez zan Prantzia'tik aginduriko laguntzarik be eldu. Eta Auñamendi'ko beste aldera jo eban erregeak bere lagunakin.

* * *

PERU NAPARRA, ATXILLO

Naparroa artu, eta aztu yaken Gaztelarrai Prantzi'ko gerra ta gerrakoak. Naparrak, orduan, Prantziarrakin bat egin, eta Iruña'ra abiatu ziran su ta ke. Prantziarrak baiña nagi ta oker jokatu, ta mugatik beste aldera jo bear izan eban barrero Peru'k bere lagunakaz.

Andik lau urtera Gaztelako Fernando ori il, eta Peru naparra Prantziarren laguntzaren begira egon barik, barrero sartu zan Naparroa'n bere mutillakaz. Erronkal bazterretik sartu ere.

An egokion zain Villalva gudaburu zitala bere mutil ugariak inguratutik, bertako atxetan gordeta; eta aren gaiñera itsupustuan jausirik, naparrak ondatu zituan, eta Peru ta aren lagun beiñenak atxillo artu.

* * *

PERU NAPARRAREN ERIOTZA

Gaztelako Atientza baitegian sartu zituen napar zintzoak, eta katez loturik an ertsi ta estu gorde. Andik illabete batzutara Peru'ren lagunak askatu zituen, ez baiña arein buru zan Peru Naparra.

Andik urte bira, Karlos Gaztela'ko errege barriaren izenean agindu eutsen Peru'ri, Naparroa'ko erregea esetsi, ta Gaztelako errege barriari makurtzen bajakon, etxera bidalduko ebela, bere lengo izen, ondasun eta izan beragaz.

Peru'k ezetz eta ezetz, eta Simankas'ko baitegi gogorrera aldatu eben Naparroa'ko seme zintzoa, eta an len baiño gogorrako artu.

Andik lau urtera, Naparroa'ko mutillak barriero asaldatu ziran, Naparroa'ko Batzarraren buru zan Yatsu'ko Juanen seme ta Xabier'eko San Prantziz-koren anaiak buruzagi zirala. Eta areik Ondarrabi'n gogor zengozen bitartean, Peru naparra jatorrari samea ebagi eutsoen, gauaz eta ixillik, Simankas'ko presondegian.

URKIOLA.k

EUSHERA GAUZARIK NAGUSIENA



Lo más importante "EL EUSKERA"

IPUL ETXI IDAZLAN LURIN SARRIETA EUSHERAZ

[Primer Concurso de Lectura y Producción en Euskara]

EUSKERA, GAUZARIK NAGUSIENA

(Ipuñen eta idaz-lanen sariketean)

Deustu'ko ikastolea asmatzaille eta Izkuntza-Eskolako irakasle diran Alfonso Irigoyen eta Jabier Uriarte laguntzaille dirala, umeentzat sariketean eder bat eratu dabe.

Zazpi urtetik amarrerakoak diran Bizkaï'ko ume guztiak sartu leitekez ipuin-sariketara eta amaitatik amalaurakoak, idaz-lanetara.

Idazleak, berak nai dauan euskera erabilli al izango dau.

Aprillaren 11'n amaitzen da lanak bialtzeko epca.

Iru sari ipuiñetarako eta beste iru, bardiñak, idaz-lanetarako: Bizikletea, kasseta eta txistu ta tanbolina. Eta beste sari asko.

Sarien banaketa, maiatzaren 14' an, Zine Astoria'ren aretoan.

Barriak jakiteko, deitu Deustu'ko ikastolara, Urrut. 4-4-9-2-8-4-9.

GAZI-GAZAK, LIBURUAK

(ABELTZE)

ANTXIÑAKO IDAZLEA

Aspaldiko idazle jatorra, errikoia, dogu Ziarsolo'tar Manu, izen-ordez «Abeletxe» deiturikoa.

Guda-aurretik «Euzkadi» eguneroan bein eta geiagotan idazten zituan bere lan atsegintsuak, izkirimiriak eta abar.

Gero AGUR aldizkarian be eza-gutu doguz bere kondaira-zaletasunezko idaz-lan mamintsuak, zeaztasunez eta berebat edertasunez beterikoa, alegia.

Euskerazalean be urte ugariak emon

ditu egunez, orduen kontua eroan baga, beti zintzoki lanari elduten eutsala, euskalki batetik bestera antzerki-itzulpenak eta abar egiten zituala.

Ori ta be, atsedean adiña eldu jakola ta, ez dogu aspaldian ikusi.

Uste dot bere lanetan eta izakeran agertu oi ziran aldarte, gogaldi onak orain bere, bere ingurumari bizi ta ibilli dabiltzanak nabaituko dabezela.

Nik beintzat emendik besarkada bero bat damotsat: Kaixo, adiskide. Agur, eta agur ta erdi.

* * *

GAZI-GAZAK

Lengo baten idatzi neutzuen bide-nabar eta arin samar ba'zan be, «Abeletxe»ren izkirimiri polit bat «Guinness» liburu barregarriatzaz zerbait jakin-erazi neutzuenen. Gaurko ontan «Gazi-gazak bere idatzi labur baiña interesgarriatzaz diardut.

«Abeletxe'ren luma alaitsuari esker, ba daukaguz bertan gatza ta piperra ugari, ikako ta erri-berbetea erruz.

AUKERATZEA GATXA

Danetarikoak daukaz, labur eta luzeak; eta ez da erreza onenak bein-

IÑORENA JANTZITA

On Kerolimo, landolako lanaren ostean joan zan etxera. Jo eban tirriña, idegi eutson atea neskameak:

—Oraindik etxean al zagoz,

Kexuxa?-Diñotso ugazabak. Urten zaite ainbat lasterren. Beko kale-ertzean itxaroten daukazu senargai!

—Baiña, jauna! Berorrek eza-

gutzen dau nere Kaxinto? Arri-tzen nau.

—Ezagutu ez dot ezagutzen baiña neure korbatea daroa ta...

GAZI-GAZAK

goan aukeratzea. Gaiñera, bateri atsegiñago jakona, ba leiteke besteren bati ainbesteraño ez izatea.

Olan ba, zuek aukeratu.

146 orriladeko idaztia dogu. Txiki ta mardultxoak.

300 bat ipuin or nunbait aurkituko dozuez bertan, eta salneurria be oso merkea.

Salgai «Euskerazaleak» etxean 150 pezetan.

* * *

ITURRIA, KIRIKIÑO

«Gazi-Gazak» liburuaren amaieran dirausku zelan «Kirikiño» ospetsua izan zan bere benetako euskal:-maixua.

Dana gitarra ta mamiña dogun liburu ortan azaltzen dausku Abeletxe'k bere biotz barne-muiñetan nabaitu ebana Bustintza'tar Ebaristo, «Kirikiño» izen-goitiz, zanaren idaz-lan batzuk lenengoz irakurri zituanean.

Bere itzak dakartzuedaz:

«Erreka bateko zurrunbilloak bere

inguru guztiak beraganatuten dauzan lez, beragandu nindun «Kirikiño»k, amabi urteko mutikoa nintzanean. 1913 urtea zan».

Geroago dirausku zelako poztasunez irakurri oi ebazan aren «erri-esakerak» eta «Euzkal-atala». Olan jarraitu eban sei urte luzeetan.

Azkenez, 18 urte zituanean, bere landolara joan, lotsati, ori bai, ta «Kirikiño» besarkatu eta guztiko arrera maitea egin eutsan.


Kirikiño berantzat ez zan beste edozein gizonen tankerakoa. Apostolu baten antza eban eta zan.

* * *

ABARRAK ETA GAZI-GAZAK

Zelanbaiten «Kirikiño»ren jarraitzaile zala ezin ukatu.

Bestela begira onen «Abarrak» liburuan darabilen erri-berbeta ta joskera ezeze zenbat ipuin eta jazoriko



URRU ATSEGINGARRIA

(ETXE)

URREZKO ONTZAK GERNIKA'N

Antxiña Gernika'ko Batzar-Etxean errietako alkateak batzen ziranean, Mendexa'n alkate gija-joa ei egoan.

Mendexa erri txikitxua izanik, Erriko etxean diru gitxi. Ta Gernika'n bazkaria ordaindu bear zanean, estu ibiltzen zan, beste errietako alkatien barre ta adar-joteak iruntzi-bearrean.

Egun batez, jatetxeko etxe-koandreak, errukiturik, ixillean ontzako urrea emon eutsan, bazkaria ordaintzen ebanean eskupekotzat emoteko esanaz.

Bazkaitako orduan, Mendexa'ko alkateari adarra jota naikoa barre egin ondoren, ordaintzeko sasoiu eldu zanean, etxeoandrea Mendexa'ko alkatea egoan lekutik asi zan kobretan, bere azpil zabala edo bandeja luzatuaz.

Guztiak Mendexa'ko ordezkariaren larrialdiari adi egozan irriparez. Onek berea ordaindu ondoren, «Ori zuretzat» esanaz, ontzako urrea laga eutson azpilgaiñean.

Orduantxe izan ziran an kontuak! Antxe amaitu ziran barre txikiak! Bata txixalarri. bestea makur-larri; baiña oso gitxi urregarri.

Al ebanak, gutxiago ez izatearren, laga eban ontzako, geienak buru-makur aldendu ziran.

Mendexa'ko alkatea barriz, odol-berritu bat lez, joan zan errira, etxeoandreak, bere ontzako gorde ondoren emon eutsozan lau ontzakoakaz.

GAZI-GAZAK

barregarri ta jator-jatorrakaz apaindu oi dabon liburua.

Or dozuez esate baterako «Atxuri'ko milagrua», «Zerutar bat», »Aramayo'ren deabrukeriak, abar eta abar».

Oneitzaz «Agur» asterokoan urte batzuk ditala, idatzi neutzuen, Bilbo'ko kaletzetaz ainbat idaz-lantxu atara nebazanean.

* * *

BESTE IDAZLE BATZUK

Amaitzera noa.

Txitean pitean onen tankerako idazle erriko ta jatorrak aurkitu oi doguz.

Beste banako batzun artean, bi daukadaz gogoan.

Bata gazte nintzala ezagutu neban. Garrotar Bernarta M.^a zan. Izenordez «Otxolua».

Onek italeratik euskeratu eban «Bertoldo ta Bertoldin» liburu barregarri ta atsegintua.

Ba daukat bere liburuzka bat be sarritan irakurri dodana.

Izen-burua, *Bijar Donianera!* da.

Itxas-gizonen eleberri txiki bat da, baiña oso pozgarria egitan.

Beste idazle erriko bat, anai Berriotxo edo Bitaña goi-izenez, Alzola Gerediaga abizenez dogu. Elezar, kontu barri ta pasaixuak be ugariak ditu idazle onek.

Ba dogu ba gure aldarte ta asti-orduetan nun aldia emon, ta euskarerenaganako zaletasuna bizkortu, bai bein.

ARREGI'tar Josu'k

BEIN BAKARRIK IL

Lekeitio'n jazorikoa.

Erria osasuntsua dan jakin nairik, turista aleman batek galdetzen dautso arrantzaleari:

—Sarri ilten al' da jentea erri onetan?

—Ez, jauna! Bein bakarrik!

GAZI-GAZAK

ERAZTUNA ZERTARAKO

Anton'ek Koxe'ri:

—Lengunean irakurri najuan, Izaro'ko ugarteetan txori andi bat arrapau ebela; gure lurraldeetan ez ezaguna. Ta bere ankan eraztun bat eroala izki ta zenbakie-

kin. Urrunetatik etorri ei zuan egazti ori. Baita be irakurri najuan, Orduña'n beste bat, au txikiagoa arrapau ebela beste eraztun batekin. Zertarako jartzen jautsezak eraztunok egazti orrei?

—Nundik nora dabilzan jakitako. Euri zetako jarri euela uste dok ba ezkondu intzanzan, atzamarrean daroakan ori, «pajarua»?

GAZI-GAZAK

ETORRIAK

ENDAKERIA

ENDAKERIA

Endakeri zaleak gareala salatuaz, gure arerioak zenbat eratarra egiten dauskuezan buru garbiketak!

Eta guk oso osoan dana irunsi, gure ondamendira goazela ikusi barik.

Egun batzuk dirala, adizkide batek deitu euskun ber-baldi bat egiteko asmoz.

Ainbat gai erabili ondoren Errian izandako batzar batera jo genduan.

Zerbait egoan kuskatzen eutsona: Batzar aretan, «endakeria» «razismo» itzak agertu eban bere burua.

* * *

EUZKADI BARRIA?

Batzar ori, Erriko Bazkun edo Soziedadeak antolatua zan. Jakiña, euskaldunak eta erdaldunak euren artean.

Norbait euskeraz asi eban bere ekiñaldia, nai ta gero erderara itzuli.

Ez ei zan asko itxaron bear, urteera garratz bat entzuteko. Bazkun arein arteko arduradun batek, erdelduna bera, endakeri-zale lez euskeraz egindakoa salatuta, denpora galtzen egozela danok esan ei eban, eta erderaz bakarrik jarraitzeko, ordua zala bakotzak bere izate ta nortasuna aitzurik Euskadi barri bat egiteko.

Gaur egun Euskadin Erriko seme beste Erbestekoak zira la, eta danok alegindu bear giñala Erri jakintza edo kultura naaztu (mixto) bat sortzen. Beste edozelako bidea, endakeria zala.

* * *

BIDE ZUZENA?

Eta zer erantzun zeuntsoen? itaundu geuntson adizkideari.

Ixilik gelditu zirala euskaldun guztiak, zer erantzun ez ekiela, eta bere biotza keskaturik egoala.

Euskaldun eta kristau lez zein izan bear zan bere jokabidea?

Argi ikusten eban egia zala gaur egun Euskadin euskaldunak baizen erdaldunak dagozala, eta gizon orrek euren eskubideak eukezala.

Beste alde batetik, berak euskaldun sentitzen eban bere burua, bere Erriko eta asaba zarren erroetan guztiz oiñarriturik.

Zelan alkartu gai bi oneik? Zein zan gure eritxia?

* * *

ERRI ASKATASUNA

Guk ez genduala gai ezbaridiñik ikusten erantzun geuntson.

Euskaldunentzat arrotasun aundiena, gizon azkatua izatea zala. Ta gizon azkatua izateak neurri batzuk ipinten dautsozala bere ekintzari.

Bere eskubide guztiak amaitzen dira urkoen eskubideak azten diran une bereatan.

Onelan jokatu dau euskaldunak gaur arte, eta guzurtizat iñork bota ez daitekidan ez dago ikustea baño zenbat erbestikoen semek emon daben euren odola Euskadigaitik.

* * *

ETORRIAK ERRIZALE

Eta zergaitik ori? Eurak edo euren gurasoak Euskadi'ra eldu ziranean, gizon azkatuak bezela onaituak izan ziralako, itzal edo errespetu guztiagaz, gizarte azkatu onetan bizi barri bat asteko eurentzat eta euren semeentzat.

Baña ba-ekien eurak nora etozan eta ez jaken iñoiz gogoratu euskaldunen eskubideak menperatzerik.

Iñoren etxera joiazan eta an etxekotu egin ziran. Etxeko seme lez artu ebezan eta ez eben Erri-Jakintza naasturik eskatu, eurak euskaldun biurtu baño.

Gaur azkenengo berrogei urte oneitan Euskadi'ra etorri diranak, danak ez badira be batzuk bai, ez dituez asmo bardiñak ekarri.

* * *

BERTOKOTU-BAKOAK

Zabalkunde edo propagandearen laguntzagaz, edo ez dakigu onegaitik euren adimena itsututik, ez dabez euskaldunen eskubideak ikusi, Erri ez badiñera datozela ikasi, eta gero urteen joan-etorrietan, euskaldunen nortasun eta jakintza ezbaridiñak dirala ikusi ditueanean, ez jake burura etorri aldatu egin bear dirala eurak, iñoren etxean dagozan ezkerro, gizon biotz zabaldunak lez euren burua erakutsiaz, euskaldunak bide erdira etorri daitezala baño.

Beste edozer endakeria da euren eritxiz.

* * *

GEUREA ZAINDU

Ez adizkide ez, esan geuntson, zeaztu daigun gai ori.

Norbera besteen ganetik ezartea endakeri zale litzake, zintzo lan billa gure etxera etorri danaren aurrean geure burua bera ta bere sendia, otseindu gure azkabideari aurka egitea litzake, baño biotz osoagaz onartu dautsozunari, gure anaitzat artu dogunari, gure Erriko Lagi ta Jakintza onartu, ta bereganatu dagizala al-ba-dau eskatzea, ez da endakeria.

Guk geureakandik artu dogun ziñezkaia «testimonioa» gure semeentzat zaintzea, ez da iñoiz endakeria izango, seme zintzoarentzat ardura astun bat baño.

A'TAR BI

UMEAK ETA IREKASLEEN JOKABIDEAK

JOKABIDEAK

Aurreko ileetan esaten izan dogunez, eziketa-arloetan gurasoak eta irakasleak batera jo bear dogu.

Ezin dogu banan ibilli.

Pentsaera au elburutzat arturik, gurasoak sarritan artzen dabezan jokabide batzuk aztertzen saiatu nintzan.

Baiña gurasoenek bakarrik jarduntzea ez da zuzena: irakasleena eta Estatuarena berarena be aiatatu bearko ditugu.

* * *

IRAKASLEENA

Gaurkoz irakasleena bakarrik aiatatuko dogu, naiz eta orain esango dotan au danen akats berezi bat izan.

Sarritan, umeekaz problemarik dogunean, errudun bakarra umea izaten dogu.

Baiña, naiz eta ezizaleentzat mingarri izan, ikusi dagigun umeen problemak aiatatzean Gilbert Robin Pedagoako bere idazlanetan esaten dauskun au:

«Ez dago ume alperrik; alperrek gurasoak, irakasleak eta osagilleak bakarrik dira».

ALPERRA, EZ, GAISOA

Jakitun onek ume alperrek «geixotzat» artzen ditu.

Alperkeria beste zertxo baten ondorioa dala diñosku, eta, beraz, osatzen alegindu bearra dogu.

Bere iritiz, goian aiatatutako irurok —gurasoak, irakasleak eta osagilleak— naiko gitxi alegintzen gara gaixo orren osasun-bideak aurkitzen.

Onela izanik, umea ez da erruduna, geu baiño.

Pentsaera au naiko mingarria da, batez be umeekaz eta gazteekaz gabiltzanontzat.

Baiña ukatu baiño leen, aztertu bearrekoa dala deritxot: Zergaitik mintzatzen da Pedago au onela? Zer ikusi ete

dau geugan ori esateko? Ona, nire iritiz, Gilbert Robin'i errazioa emoten dautsoen irakasleen jokabide oker batzuk:

BARRIZTU EZ

Gizonak, izatez, geienbaten aal danik eta bizitza ero-soenera jotzen dau.

Au ez da bat ere txarra, baiña arlo batzutan bai aris-kutsua.

Sarritan, orduak eta orduak lan egin ondoren edo egun guztian ainbeste umegaz ibilli ondoren, ikasten jarraitzeko gogo gitxi izaten da, eta atsedenera edo erosotasunera jotzen dogu.

Eta onela urte batetan, bitan, irutan... Azken baten, titulo batek damoskun eskubide bategaitik jarraitzen dogu lanean.

Bai, bai, irekaskintzarako esperentzi apur bat be jortzen da; baiña irekaskintzatik eziketara oraindik alde aundia dago, eta barriztu ezik...

EZIKETA - OGIBIDE UTSA

Beste batzutan, barriztu ezagaitik edo, irekaskintza ogibide ustzat artzen dogu.

Jokabide onetan ardurarik bereziena, aal danik eta ondoen irekastea da.

Orain ume batek nota txarrak ateratzen baditu, laburra dalako izaten da. Irakasleak aalegintzen gara, eta, beraz, ez da gure errua, esaten dogu.

Jokabide onetan ez dogu geure gaitasuna eztabaidatu gura, eta geiago sakondu barik, irekatsi bearreko liburuei, umei eurei baiño garrantzi geiago emoten dautsegu.

Edo onela edo ainbesteraño ez bada be, geienbaten umearen problemaren batez konturatzen garanean, gurasoei aiatatzeaz naiko dala uste izaten dogu, gurasoak izanik, curak arduratu daitezcan.

IREKASKINTZA ETA DIRUA

Nor ez dau jartzen diruak dantzari? Edonor.

Zenbatetan aitzu ete dira umeak eta umeen problemak dirua dala eta ez dala!

Ez, ez, ez; ez dago geiegi sakondu bearrik: or ditugu «permanencias» deritxoguzanak, or umeak obeto «ezitzeko» ikasgu garestietara bialtzeko asmoak, or udan irebazpide bat izateko bagilleko «suspensioak», or ain txikitako irekaskintzak garrantzirik ez dauala eta aal danik eta gitxien irekasleak ordaintzeko aalegiñak, or soldat urri baten truke, neurri bereko irekaskintza, eta abar, eta abar...

Jokabide guzti oncin neurria eta aitatu bako beste askorena, dirua da.

Zelangoa ete da onela biarko gure semeen gizartea?

Bide onetatik geure semeen eta umeen ondamentia baiño ez dogu lortuko.

ARGIARI BAKARRIK LAGUNTZEA

Ume batzuk besteak baiño argiagoak dira. Eta, jakiña!, oncikaz jokatzea errezagoa da.

Baiña jokabide onetan sarritan uts bi izaten ditugu:

Leenengoa: laguntzarik geien bear dabenak, baztertuta izten ditugu.

Oneik, nota txarrak ateratzeaz gainera, konplejoz bete dagikeguz, bizitza guztirako nolabait gauzeztanduz.

Bigarrena: gure lana irekaskintza mailan baiño ez dogu artertzen.

Nire ustez, irekasleak ezitzalle be izan bear dau, eta esandakoan ez dogu «eziketarik» aitatu be egin.

Ez da naiko irekastea, ez ondo irekastea: ezi be egin bear ditugu, gizarterako ditugu eta.

Zer egiten dogu gizon edo emakume argi eta ospetsu batzuk atarateaz, gizarte bizitzan bear bezelakoak ez badira?

Bestalde, umeak, argiak izan edo izan ez, euren sasoiko goraberak dabez.

Oneik sarritan ez doguz, ez susmatzen, ez ikusten, ez aztertzen.

Eta onela, onartu ete dagikeguz geure irekasle-jokabideak?

Biarko gizartea egiten ala desegiten diardugu?

NORBERAREN UTSAK UMEENGANATU

Beste askotan, aal danik eta ondoen czitzeko, leenengo aztertu egin bear ditugula eta, umeen izakerak ikasten

saiatzen gara, eta naiko sakon egiten ditugula eta ibiltzen gara.

Baiña sarritan gure ikasketa oneik oinarrizko uts bat izaten dabe: teorizko-egia izaten da.

Umeak ondo ezi naican izaera, sendi bizitza eta gizarte-ingurua aztertzen ditugu, esate baterako; baiña umeen eziketean garrantzi aundia dauan alde berezi bat ikutu ere egin barik izten dogu: alde ori geu gara.

Edo, zelan eziko ete ditugu, geu ez bagara eziak?

Eziko ete ditugu biarko umeak, gu geu ezita egontzake?

IREKASLEEN ONDO IKUSI NAIA

Gaur egun irekaskintzak, gizarteko beste alde askoren antzera, estunc bereziak jasaten ditu: diru egoera larri batean bizi gara, lan bako titulodun asko dago, lana galtzeak ia jasan eziñeko egoerak sortzen ditu, siñiskera eta pentsaera ezbaridñak ikasgu bateko buru eta langille arteko artuemonak eragozten dabez, eta abar...

Gizarte egoera onetan «irekaskintzako langileak» lana ia ikuspegi bakar batetik bakarrik ikusten dabe: dirubide ikuspegitik.

Lantegi batean langille bat ona daanentz ikusteko, atarutzen dauan lana epaitzen da.

Irekaskintzan au egitea ez danez ain erreza, irekasleak beste neurri batzuez epaitzen dira, esate baterako: siñiskerak edo pentsaerak aztertuz, zuzendaritzaren aldekoa ala aurkakoa dan ikusiz, ikasgu bateko betiko jokabideak onartzen dituanentz begiratuz, eta abar, eta abar.

Egoera onetan «irekaskintzako langillea» nasaikeri batean jausten da: zuzendaritzaren jokabidean jarraitu ezker, ez dau problemarik, eta, beraz, norberak problemarik ez izateko bide ori jarraitzea naiko da.

Eta umeak? Ai!, umeak... umeak gurasoenak dira.

Jokabide onetan gure lanak galtzite eta kalte aundiak izan dagikez, bai irekaskintzan, bai ikaskintzan eta bai eziketean.

Bai, penagarria da, baiña sarritan umeen uts askoren errudun geu gara.

Eta... «ume» itza esaten dotanean, ez pentsa jokabide au bee mailako irekasleena bakarrik danik.

Unibersidadean bertan be bardin jasoten da, eta, ostantzean, aztertu irekasle batek niri neuri esana: «Nigaz ez dozue problemarik izango. Suspensioak irekasleen aurkako jokabideak sortzen dabez, eta... nire ogibidea au da».

Onatx irekasleen uts batzuk. Gurasoenak be batzuk aitatu genduzan.

Zer egin eta dabe errubako oneik guk, adiñekook, onela eurekin jokatzeko?

LEGARRETA'TAR JOSU'K

BIDEAK ETA ARDAUA

BIDEAK ETA PARKEAK

Oraintsu, Bilbo'ko autopistan, Santander aldera-koan sartzean, oial bat egoan dindilizka: Menos autopistas, más parques.

Konturatu nitzan umez betetako andra errukarrien baten eskea izango zala.

Alaz eta nire artean esan neban: Ondarroa'tik Durango'ra sarri joan bear ba leu, nai ta ondarrutar andrak baiño ume geiago euki, eskatuko leuke alako baten autopistaren bat.

ARDAUA BUSTIGARRI

Era askotako deiturak daukez gure bideak: bide txiñorrak, baso-bideak, erreka-bideak, anda-bideak, pistak, bide barriak...

Ondarroa'tik Durango'rako onek ba dirudi anda-bidea dala, illa erabili bear izaten dan bidea, sekula konpondu ez eta ala ta be bertatik igaro bearrekua.

Edozetara be itaun au datorkit: Ez al da gaur ardaurik edaten gure errietan?

Jakiña da ardaua izaten zala len bideen oiñarri.

Bide bat egitea bururatu orduko, ardauari zerga, impostua. Beste gauzarik ez ba egoken lez. Esan bear:

Errioxako nai naparra
betor ardaua parra parra.

* * *

URAK ANDI, BAIÑA...

Bizkaian, lengo gizaldian, bide barriak egin zira-nean, iñori ez yakon bururatu, esate baterako, arraiñari zerga ipinterik, nai eta bide orreik egiteko aitzaki batzun artean, Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa'ren mesedean zirala esan, erri oneitatik Castilla aldera bialtzen zan arrain pilla bizi-bizi eta gaitasun osoz bialdu bear zan premiña izentatuz.

Elantxobetar adiskideren batek esango eban onez-kero. Ta Elantxobe? Ez ete zan arrantzalien kai edo portu?

Ai ene! «Reges debellavit»... Lekeitio'k; «In primis Bermei»... Bermio'k; Ondarroa'k, sekula latiñan tutik jakin ez daben Ondarru onek, bale mutua bere ikurdian (eskudoan). Eta Elantxobe'k? Biotz aberatsa

baiña pobre gogo. Elantxobe milla probe, kanpaiak esan eta esango.

Orduña'tik zearko bidea egin zanean kontu artzeko dira orretan esku artu nai ez, au da, ordaindu nai ez ebenak: Elantxobe, portuko mollak egiten zorrez beteta egoala ta ordukoz beintzat ezin eikeala.

PRAILLE MAUKA ESTUAK

Balmaseda, Larrea eta Markiña'ko prailleak be larri agertu ziran ordaindu nai ezta. Ardauari ipini yakon zerga emotera ukatu egin ziran eurak. Auzitara jo ta galdu ondoren, oraindik be Markiña'ko prijoreak zerga orren zati bat kentzeko eskatu eban, bear ba da ezetza lendik be ba egoala ta. Alaxe gertatu be, gure asaban erabagiz.

URKIOLA'KO BIDEA

Geroago, Urkiola'tik zearko bidea zabaltzean, barrero ardaua bideko autsak busti ta zorren estal-garriztat.

Ainbat Bizkai erri lepoa jasoten, ordaindu nai ez da agertu ziran, tabernarik ez euken aitzakiz. Ala Amoroto, Apata, Ereño, Gizaburu, Mendexa, Meñaka eta Nabarniz. Eta Markiña be aurka. Markiña'k esaten eban Bilbo'ren mesederako baiño ez zan Orduña aldeko bidea egiteak zorpean laga zitula erri txiki guztiak eta ordukoa naiko zala, zor barririk artzen ibili barik.

Arrigarriena Mañari'ren jokabidea zan. A be Urkiola'ko bidearen aurkoa. Zetan geratu kantu a:

Mañaritik asi ta Urkiolarañ
ez da ikusten besterik aldatz gora baiño?

Baiña kontuan euki: Lenengo asmoa Mañari'ren albotik bidea egitea zan. Eta Mañari'k erri barrutik nai eban, erriaren erdi-erditik. Mandazaiñen burdi zarrak ate aurretan ikusi nai.

Gaur, erri guztiak, bideak bastertu eziñez dabiliz.

Lengo kale estuak zabaldu nai, aizea arnastu edo ta eguzkia artu al izateko.

Osasunaren kalteko dira gaur gure errietako bide ta kale asko. Arriskuz beteak: kei, usain, nabar-menkeri, zarata, pixu, dardara...

Giro guztiak eukiten dabez euren eskabideak. Gaur parkeak nai dira. Betoiz edo egin bediz ainbat arifien. Baiña autopisten mesedea aukeran lagata.

A. ZIBIKARAI

JAKIN GARRIAK

AN
DRA
TXU
AR
TE
SA



NORGEIA GOKA

DOMINO-JOKO BAT

«Guinness» liburuagaz jarraiturik, Bob Speca'ren izena dekartzuet oraingoan.

Bera «dominó» jokoan ludiko irabazle gailena zan.

Ez, ain zuzen, joko ontan beste edozeini irabazten, bai baiña bere aldetik dominó orreik illaran toki laun baten ipiñi ondoren, denporaldi txikienean lurra jo erazten.

Galdu eban beingoan 1976'garren urtean norgeia-gokako joko au, eta ori ta be txapeldun geratu da barrero 1.977'garreneko bagillaren 21'ean Pensilvaniako Ikastetxe Nagusian.

Bota dauzan «dominó» orrek 50.000 ei dira, eta ortarako bear izan dauan astia 17 minutu ta 46'27 lipar edo segundu.

ATZERUNTZ ARIÑEKETAN

Nueva Zelanda'ko Paul Wilson'ek be, beste ludiko goienengo mailla bat lortu dau.

Atzeruntz ariñeketan eun metroko ibillaldi baten, igazko jorraillaren amargarrenean, 13'3 segundu eralgi zituan 70 urte azkenetan Robinson izenezko dantzari bikain batek eukana ziur asko.

Dantzari au Claque Bill deitu oi dan errian jaioa zan.

EVEREST'ERA

Mendigoizaleei begiraturaz, esan geinkena da 56 notin egundaino Everest mendi-gallurreraino eldu dirala.

Itxaroten gagoz euskaldunak ia noiz, «Tximistarrak» edo beste euskal-talde batek be ori berbera lortzen dauskun.

ZEMU-TONTORRA

Ori ta be, mendi bakan bat dogu Karakaram Mendi-kateak alde batera itxirik, goirik berakoan, aundieran, lurbira osokoak kontuan arturik 31'garrena dana eta oraindino gizakumerik bere erpiñera bertaratu ez dana.

Bere izena Zemu-tontorra da eta goi-berakoa 7,779 metrokoa ei da.

Everest mendi nabarmena baiño 1.066 neurkin edo metro gitxiagokoa, alegia.

TECNAVAL ELKARGOIA

Euskaldunentzat jakingarri dogu ingenieria'ko «Tecnaval» deitu oi dogun Bilbo'tar elkargoa izendtu dabela ludi guztiko konkurtsu-neurketa baten, Suez'ko urbidearen zear, geroko baten ia 2.000'garren urtearen inguruetan joan leitekezan itxas-ontziak zenbat eta zelako aztagai edo toneladakoak izango diran, ze neurri-kokamen izango dituen ta... abarren azterketak egiteako.

Agindua emon dautson alkartearen izena, «Suez'ko Urbidearen Aginpidea».

GEROKO GERTU EGOTEKO

Alkarte onen ardurapean izango dira, oingoz begiratzea ta jakitea gaur egunean ze joan-etorriak dituan urbide onek, ze muetako itxos-ontzi ta ontziñoak bertatik igaroten diran eta orrelako beste zertzelada baliotsuak.

Argibide oneikaz ta ludi guztiko ontzien geitze garrantzitsua bertan geroago ta areago ikustatu oi danez, geroko baterako gertatuta egotea gura izan dabe.

Au izan da konkursu onen zergaitia.

A'tar Jo'k

EUSKOTAR JATORRA

Orrialde onetan agertzen dan neskatilla (len), orain andratxu urteduna, bai ba dala artesa!

Bere izena Tiburtzi. Jaiotzaz eta abizenez, euskotar jatorra.

Euskalduna be bai.

Nire ta askoren ustez, erderaz baiño euskeraz obeto ta geiago egiten dau.

Bost seme-alaba azibako zituan alargunaren alabarik gaztetxuena zan eta gaztetxu zala urten bear izan eban etxetik otsaintzan ogia irabazteko.

ERRUKARRIAK LENGU ALARGUNAK!

Lenago, esaterako orain 40 edo 50 urte, ez España'n ez Euzkadi'n ez egoan zar-saririk, ez alargun-saririk.

Errukarria benetan, gizajea, andra alargun beargiña, seme-alabarik azteko ba'eukan!

Ondasun txikiren batzun jabe ba'zan be, erriko jauntxukazike zitalak lapurtuko eutsoen geienetan.

Ez arritu ba, Tiburtzi gure neskatotxua, zortzi edo bederatzi urte zituala, berea ez dan etxe baten aurkitzen ba'dogu, jateko ta jantziteko bear dauana irabazteko, zergintxuak egiten. Eta ori bere osasun gitxiak, amaren ondoa eskatzen ebala.

EZKONGE GERATUA

Gaisorik, makal, osasuna ondo zaindu eziñik, eldu zan ogei-ogetamar urtera, beti ona, beti Jainkozalea eta beti, batez be, zuzentasun-zentzun aundi bategaz.

Osasun gitxi eukalako edo bere sasoiaren abagunerik izan ez ebalako, ez zan ezkondu, «birrotxa» geratu zan.

OKELATEGIAN ZUZEN

Beiñola, bere jaiotetxean, Bizkai'ko erri baten bizi zala, okelategira joan bear izan eban eroatera.

Erosleak ugari ziran ereskada aundian eta bera bere txandea gordez itxaroten egoan, okelariaren saltze-ekiñaldi bizkorriari begira. Saldu baiño lenago, jakiña, okelcaren astuntasuna jekiteko, pisua erabillen.

Tiburtzi'k oartu eban saltzaillea, maltzurkeriz, okelea astunago egiteko aitzo ziriz edo orkolo-erpuzur ibiltzen zala pisuan.

KONTUZ GERO!

Andratxua, ona ta artesa zan lez, beste erosleen aurrean ixillik egoan, baiña saltzailleari bizibideko zuzentasuna irakasteko ta bera lapurkeritik aldenduteko, erreskadan atzeratu egin zan eta azken geratu.

Bakarririk aren aurrez-aurre geratu zanean esan eutsan: —Zu, Boni! kontuz gero! Pisu ona emon egizu! Ez zaite ibilli erpuruaz edo aitzo-ziriaz pisua geiagotuten!

SAL-EROSKETAKO MALTZURKERIAK

Euzkadi'k au lako andra zintzo ta artesak bear ditu, lapurkeri, okerkeri, maltzurkeri ta zuzengabekeriak aldendu ta urrinditeko.

Euzkadi'ri begira ez daitela esan España'ri buruz esaten dana: «Sal-erosgaietan maltzurkeri geien egiten dan Europa'ko lurraldea España da, eunetik larogeik janari-legeen aurka jokutzen dabe».

EGILUZE'k



Euskaldunen tzat kultura-bidebat

LORTU GURAZ

Euskal-urrutikuskiña* lortzeko urduritsu ta gartsu dagerkigu* gure euskal-aldun Iñigo Agirre. Berau da kultura-saillean gure batzarkide edo parlamentarioen ordezko eta RTVE'ko aolkarien* batzarreko.

Gutziz amazortzi aolkari dira eta Agirre jauna euretariko bat.

Lenbaitlen telebista Euskalerra'n sakonki ezartea gura dabe eta orretarako gure biltzarkideak artu-emon garrantzitsuak darabildez telebistaren zuzendari orokorra dan Arias Salgado jaunagaz. Gaia Euskalerra osorakoa ei da.

* * *

ORDU EGOKIAK

Orain itaun bat.

Ordu egokiak jadetsi al izango doguz? Orkozka.

Oingoz beintzat Madrilletik jatorkuzan egitarauak izten dabezan ordu azke bakarrak lagatzen dabez. Ezer ez baiño ohea dala deritxat, baiña ori be oindiño ikusi bearko da.

Bestalde, Gipuzkoa'ko Ondarrabi'n be, dirauskuenez, telebistarako egitarauen egituran jarduteko toki-billatzeak egiten eta ondorengo ezarteak ipinten daragoie. Dana gertaturikoan, erri-ser-

bitzurako asiera 1978'garrenko azkenerako izango ei da.

Bartzelona'n be, Miramar'en, onelakoren bat dabe.

* * *

JOMUGAK

Iñigo Agirre jaunaren asmoz, euskal-urrutikuskiña ez da izan bear soil-soilik eguneroko jazokizunen agerbidea. Bertan esku artu bearra dabe Euskalerraaren guna, enda-barneko muiña adierazo oi daben ikuspegi ezbardin guztiak.

Onein artean, batik bat, euskera ta kultura-gaiak ziur asko.

Agirre jaunaren eritxiz, zeregin gaillena* laterrian doguzan telebis-bide biak, UHF'koa geien, Euskalerra osoan edatzea, zabaltzea da.

Beste irugarren telebis-bide, kanal, bat be Euzkadi osorako lortzea gura leuke eta iruretan euskal-egitarauak atara.

* * *

TELEBISTAREN INDARRA

Urrutikuskiña* ondo erabilliaz, beretzat, eta ni be beragaz batera nator, berein ikastola baiño garrantzi ta gora aundiagokoa da euskerea ta euskal-kulturea nunai zabaltzeko.

Ori ta be, indarge ta ardatz barik geratu ez gaitzean, urrutikuskin-autonomia bear-bearrezkoa dogu. Ontan be guztiok gatoz bat.

Bilbo'n ba daukagu «Centro Regional» deritxona. Baiña onek teknika ta eraginbide aldetik beintzat, ez daukoz bear diran baldintz guztiak Ipar-Euzkadi'raiño eltzeko.

Beste zeren bat be begiztau bear dogu. Autonomia lortzerakoan, teknikan gertaturiko notin arduradunak prest eukitea egoki baiño egokiago izango jaku; eta bardin-samar barri-emoilleak eta abar izatea.

Oraindik asi ta gertatu bear gara.

Ba ei dagoz alkarteren bat edo beste ontan jarduteko prest dagozenak.

J. L. bizpairu* urtetan, eta al ba'da lentxoago obe, ia asmo baliotsu oneik beteten diran gure Euskerearen eta kulturearen onerako.

Ez dagigun ustea galdu bein be.

A'TOR JO

POZTASUNA OÑARRI

TAMALTASUNA

Apurtxobat gure ingurura begiratu ezker tamaltasuna somatzen da alde guztietan.

Tamalik dagoz gizon ta andra urtetsuak, indarrak galduaz doazelako ta gazteen alde-tik bastertuak aurkitzen diralako.

Goibel gurasoak sendiaren jabetasun gu-txi dabe ta.

Illun gaztedia, mundu barri baten billa bide garbi ta zuzenik aurkitzen ez dabelako.

Larri umeak, bake gutxidun inguruan bizi dira ta keskati eliz gizonak artaldea larre ta zelai askatasunkeri ta mundutarretara biurtu dalako geienbaten.

Alde guztietan tamaltasuna agiri da ta gizona beti naigabetuta biziteko egiña ez da, zorioneko izateko egiña baño.

* * *

UDABARRIA

Merezi dau bizitzak samindurik bizite-kotan?

Udabarrian gagoz. Aro ona poztasunean murgiltzeko.

Udabarrian dana da bizia dana poztasuna.

Edurra urtu da mendietan eta errekatxoak ur garbiz beterik pilpil datoz errietarutz.

Zugaztiak orriz jantzi dira ta euren ada-rretan txoritxoak abi politak egiñaz abeslari dagoz.

Loratxoak usain gozoz bete ditue zelai ta baratzak.

Bildotzak triski traska ijutuka dabiz ar-dien inguruan.

Dana da bizia dana alaitasuna.

Zergaitik guk geure barrua ta ingurua ez doguz betetan alaitasunez?

Iruntzi samintasun guztiak eta alaitu gure bizitza.

* * *

ERRI ALAIA

Euskal erri alai bat egin bearrean gagoz benetako euskalerrria izan daiten.

Irribarretxua ezpanetan danentzat.

Maitetasuna ugari guztentzat.

Erri iguingarri egiten gaituen gorrote ta amorruak utikan betiko.

Bearrezkoa da kemen aundia alaiak izateko daukagun inguru naaztua ikusirik.

Egun guztietan izparringi, irrati ta beste komunikabide guztiak izpar larri ta tamalga-rriakaz murjiduta itxiten gaitue.

* * *

MUNDU BARRIA

Mundu barri bat eginbearrean gagoz, mundu garbia alai, udaberriaren antzerakoa ta orretarako itxaropenez bete bear gara.

Siñistedunok Kristo berbiztu barrian dogu itxaropenik aundiena ta guztiok Euzkadi berbiztu bat lortu bear dogu kementsu ta ernai jokaturik.

Bein eta beti esango dot tamaltasun larre-gia uxatu ta poztasuna indartu bear dogula, poztasuna lanaren ta aurrerapenaren iturri ta oñarria dalako.

Poztasun barik ez dago baietzkortasunik eta ezertarako gogorik.

Alaitu gure barrua alaitu sendia, alaitu erria.

Utikan negartiak!

Utikan ezezktasuna!

GALLASTEGI'tar

EUSKERA IKASTEKO, ENTZUN ETA ULERTU

XABIER PEÑA'REN IRAKASPENAI JARRAITUZ.

KASETAK DAUKAGUZ SALGAI.

ESKATU

EUSKERAZALEAK ALKARTEARI

(Colón de Larreátegui, 14-2.º)

EUSKERAZALEAK

BATASUNA

* * *

AMAR URTEKO BATUA

Gaur egungo umeak, mutil eta neska, oiñak lurrean iminten dautsoeguzan baño len, praka luzez jazten doguz.

Baiña amar urteko mutiltxo Batua, praka motzetan darabilgu, seiñekogiñtzan diarduenen eretxi ta elburu ezbarðiñak izatearen erruz.

* * *

EZBARDITASUNA

Batuako argin eta arotzen artean, norberekeriak eraginda edo, ezbardintasun nabarmena agiri da aditzetan, izenetan eta arderazko ta euskerazko itzak batzuek beste batzuek baiño ugariago agertzean.

Emen: *ttipi, txiki, pitti, piti; Iruina, Iruinea, Iruña; erantzuna, arepostua; Biltzarra, asanblada; atzerriratu, extrainatu; autarkia, boza; askatu, libratu; t. a.*

Itz oneik danak izango euskaldun, baiña irakurterakoan iztegi andia bear samatik diñdilizka.

BIZKAIERIA KONTUAN

Danontzat ulergarri izan daiten, izen bako-txarentzat itz bakar bat bear ba'dogu, zergaitik orrenbeste izen ezbarðin gauza bat esateko?

Eta batasun egokia egiteko Zubaroa, Napa-rroa, Lapurdi ta Gipuzko bateratu bearrekoak ba'doguz, zergaitik bizkaiereari orrenbesteko ez-ikusia?

* * *

ERANTZUN BAT

Orañdik oraintsu, izenberik bageko orritxu batean, «bizkaiera, sasi-euskara» irakurri izan dogu.

Oraingo lan au amaitzerakoan, bijoakio ba, «bizkaiera sasieuskara»ren egilleari nire aldetiko itaun au: I eu, txotxo, eure izenagaz batean aitaren aldetiko abizen edo deitura ez agertzean, esango al daukaguk izara artekoa, sasikoa ala-ta nongo aita ezezagunaren semea aizan?

LANDAJUELA'tar A. 'k

ZER DA

Ildoa? Lurrean egiten dan zuloa edo orretan iraultzen dan lurra:

Mezua? Beste bateri esateko artzen dan jakingarria.

Oroigailua? Zerbait gomutatzeko indarra daukan gauzea.

Abagunea? Erea, ordu egokia.

Asaldatu? Barrua artegatu, norbaiten aurka jarri, matxinadaren bat egin.

Arrauna? Txalupea uretan eroateko indarra artzen dauan zurruna.

Damotsat? Emoten dautsat.

Bidenabar? Bide batez, labur, ariñeketan.

Aldarte? Lanik bako aldia, gogo-egocra ona.

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaite.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, berton daukagu.

